



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
[Telf. 948637005](tel:948637005)
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

2024KO OTSAILAREN 6KO 84. ALKATEAREN EBAZPENA, ZERBITZU ANITZETAKO OFIZIALA/BASOZAINA LANPOSTUA (C MAILA) OPOSIZIO LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO ONARTU ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ONESTEN DUENA, OPOSIZIOAREN PROBA NON, NOIZ ETA ZER ORDUTAN EGINEN DEN ADIERAZTEN DUENA ETA UDALAREN ATARIAN EGONEN DEN WEB FITXAN ARGITARATZEKO AGINDUA EMANEZ.

18372R ESPEDIENTEA.

Alkatearen 216/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko 103. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, maiatzaren 26koa; urriaren 31ko 509/2022 Ebazpenak aldatua –2022ko 228. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, azaroaren 17koa–) onetsi da 2022rako lan publikoaren eskaintza, ezartzen dituen enplegua egonkortzeko prozesuak eta deialdi bereziak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeari jarraikiz.

Osoko Bilkuran 2022ko azaroaren 16an hartutako erabaki baten bidez, toki erakunde hau partez atxikitzen zaio uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako erregulazioari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze-prozesuak gauzatzeko, Nafarroako Administrazio Publikoetan, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz).

Lesakako Udaleko alkatearen abenduaren 14ko 578/2022 Ebazpenaren bidez onetsi zen zerbitzu anitzetako ofiziala-basozain lanpostu hutsa oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Ebazpen hori 2022ko abenduaren 30eko 263. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ale berezian eta zuzenketa 2023ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean.



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
[Telf. 948637005](tel:948637005)
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Deialdiaren 6. eta 7.2.4. oinarriek jarraituz,

Ikusirik izena eman duten izangaiak,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

1.) Lesakako Udaleko zerbitzu anitzetako enplegatua/basozaina lanpostua (C maila) onartutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesurako lanpostu hutsen deialdia, abenduaren 28ko 20/2021 Foru Legean, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoan, xedatutakoaren arabera:

-ONARTUAK:

1.-***4775**
2.-***6168**
3.-***7461**
4.-***8029**
5.-***5461**
6.-***6707**
7.-***7214**
8.-***3730**

BAZTERTUAK:

Inor ere ez.



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
[Telf. 948637005](tel:948637005)
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

2.) Oposizioko lehen proba egiteko lekua, eguna eta ordua zehaztea:

-Proba teorikoa: 2024ko otsailaren 20an, goizeko 9,00etan, Lesakako Udaleko liburutegian (Komentu karrika, 1, Lesaka).

3.) Ebazpen hau Lesakako Udaleko web orrian eta atariko deialdiaren web fitxan argitaratzeko agindua ematea.

4.) Ebazpen hau epaimahaikideei jakinaraztea.”

Hauxe jakinarazi nahi dizut, zure ezaguera eta ondorioetarako, eta ohartarazten zaizu aipatutako erabakiaren aurka jarri dezakezula ondoko helegite hauetariko edozein:

A. Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organo beraren aitzinean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik hilabeteko epean (39/2015 Legearen 124.1. art.).

B. Administrazioarekiko auzi errekurtsoa:

- Nafarroako Justiziako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzi Salaren aitzinean.

- Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailearen 13koa).

C. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Administratiboaren aitzinean, hilabeteko epean, jakinarazpena hartzen den egunetik kontatzen hasita (6/1990 Foru Legea, uztailearen 2koa).

Lesaka, 2024ko otsailaren 6an.

ALKATEA,

IDAZKARIA,